



5. TXOSTENA

ANTOLAKETA DEMOKRATIKOA

ALDERDIKIDEEK EGINA
ETA ARINA, EUSKADIK
DITUEN ERRONKA
POLITIKO ETA SOZIALEI
ERANTZUTEKO

IX. BATZAR NAGUSIA - ASAMBLEA GENERAL

1.- HITZAURREA

Aldaketa bizi eta iraunkorreko denborak bizi ditugu. Gauden egoeran, alderdiek errealitate berri honek eskatzen duenera egokitzeko gaitasuna izan behar dute, egitura arinago eta moldagarriagoekin, etengabe aldatzen ari den gizarteari erantzun arinagoak eta hobeak emateko gaitasuna izango duten erakundeak izateko.

Gure erakundea antolatzeke modua egokitzeko erronkari heldu behar zaio alderdi gisa dugun nortasuna errespetatuz eta ia 130 urte bete dituen erakunde politikoa izateak aitortzen digun balio handia aintzat hartuz. Edozein aldaketa eta egokitzapen egiteko, kontuan hartu behar dira kontrajarriak izan behar ez duten bi elementu: berrikuntza eta gure nortasunarekiko errespetua. Horregatik, inoiz baino garrantzitsuagoa da prozesu honi heltzea, garenetik gorde nahi duguna nabarmenduz, oraingo momentura arrakasta politiko handiarekin ekarri gaituen 130 urteko historiaren ikuspegi ez galtzeko.

Testuingurua

Desafekzioa eta urruntzea. Gizartean oso sustraituta dauden demokrazietan, politikarekiko gero eta desafekzio handiagoa ematen ari da, herritarrak erakundeetan eta alderdi politikoen artean gertatzen diren erabaki eta eztabaidetatik urrun sentitzen baitira.

Horri lotuta, gizartea gero eta indibidualizatuagoa da, herritarrak arlo publikoarekin arduratuta eta harekin inplikaturik egotetik igaro baitira ardura osoa beren behar partikularretan jartzera, eta administrazioa eta erakundeak ikusten dituzte zergen bidez ordaintzen dituzten zerbitzuen hornitzaile gisa. Oro har, herritarrek galdu egin dute denona den horren kide izatearen sentimendua, hau da, esparru publikoa euren ere baden sentimendua galdu dute, eta horrek ekarri du erakundeei eta haiek kudeatzen dituztenei ikuspegi gero eta kritikoagoarekin begiratzea.

Bestalde, politikaren arrakasta edo porrota, hein handi batean, aurreikuspenen kudeaketaren arrakasta edo porrota da. Demokrazia finkatuak, azken hamarkadetan gero eta ongizate handiagoa eta, itxuraz, mugagabea eskaini dutenak, erantzun zaileko dinamika batean sartu dira, objektiboki eta ezaugarri orokorrei begira aurreko garaietan baino hobeto bizi arren, etengabeko asegabetasunean bizi dela dirudien gizarte batekin. Europar dimentsioko gizarte-dinamika nagusi horrek funtsezko eragina du politikaz eta alderdiez dugun pertzepzioan, eta, gainera, oso konponbide konplexua da, dinamika sozialei, ekonomikoei eta tokiko dinamiketarik nekez hel dakiekeen balioei erantzuten baitie.

Populismoen gorakada. Mugimendu eta alderdi populistak ugaritu egin dira, diskurtso errazak, herritarren arazo eta eskaera zehatzetara zuzen-zuzenean doazenak, planteamendu erraz eta zuzenekin. Gizartean arazoen konponbidea ikusaraziz, ñabardurarik gabeko diskurtsoekin. Euskadin ere ikusi ditugu balio horietan oinarrituta hazi diren alderdiak, argi eta garbi indibidualismora jotzen dutenak, gizarteak azken urteotan bizi izan duen asegabetasun iraunkorrera, alegia. Testuinguru horretan, gure ekintza politikoa beti izan da Euskadi Herri gisa eta erkidego gisa defendatzea, balio eta interes komunak eta askotarikoak defendatzea. Guztion interesa defendatu dugu eta defendatzen dugu, norbanakoen interesaren gainetik, gure aurkari zuzenenek orain aldarrikatzen

ari direna, itxuraz diskurtso sozial batean bilduta aurkeztu nahi duten arren. Gure erronka da denona den horren eta konponbide orekatuen pedagogia egitea, arazo konplexuei konponbide magikoak eman nahi dizkietenen kontra lehiatuz.

Alderdikideez hustea. Euskadiko Ongizate Estatuaren bilakaerak eta azken hamarkadetako dinamika instituzionalak alderdikideez hustu dituzte alderdi politikoak. Politikan parte hartzeko arrazoiek argitasuna galdu dute, eta kasu askotan Herria ikusteko modu jakin batekiko berezko konpromisora mugatzen dira. Gure Alderdia demokraziaren lehen urteetan hazi zen bereziki, demokraziaren ilusioak eta Herri honi forma eman dioten erakundeen eta zerbitzuen egituraketa eraikitzeak aukera eman zigun ilusio ikaragarriak bultzatuta. Gainera, testuinguru sozioekonomiko zehatz batean gertatu zen, non militantzia sozial eta politikoa pizgarri baitzen sozializatorako eta garapen pertsonalerako arrazoi bat aurkitzen zuten pertsona askorentzat. Hori guztia aldatuz joan da azken urteetan, bai antolaketa instituzional hori sendotu delako, bai alderdikideen euren gizarte-ohiturak aldatu direlako.

EAJ-PNV alderdikideen alderdia baino gehiago da, masa-alderdia baino gehiago, komunitate-alderdia da. Sortu zenetik izan da Euskal gizarteari antz handiena hartzen dion erakundea, Euskadiko herritarrak hobekien ordezkatu dituena. Hemendik aurrera daukagun erronka da formula berriekin asmatzea, orain artekoa izan garena izaten jarraitzeko.

Garaian garaiko erakundea. Alderdiak funtsezko erakunde demokratikoak dira, hala izan dira mende bete eta erdian. Gizarte-aldaketen parte eta ondorio dira, eta, horregatik, egokitu egin behar dira. Hainbat hamarkadatan oso eraginkorra izan den antolaketa-egitura dugu, baina berriro pentsatu behar da gizarte berrira moldatzeko, non komunikabide berriek, ekitaldien abiadurak, inplikazio aktiboari eta elkarlanari eusteko beharra edo ordezkariak prestatzeko eta trebatzeko beharra aintzat hartu beharko baitira egungo garaietara moldatutako erakundea izango bagara.

2.- HELBURUAK

EAJ-PNVk bere Batzar Nagusia egin beharko du egungo testuingurua zaila eta aldakorra den garaian, eta erronka eta arazo garrantzitsuak ditu konpontzeko, bai barruan, bai kanpoan. Munduko azken gertaerek demokraziaren gainbeheraz ohartarazten digute, eta gogobetetze-ezaren sentimendu gero eta handiagoa dago, bereziki belaunaldi gazteenen artean. Ondoz horren arrazoiak askotarikoak dira: gobernuekiko atsekabea eta politikarekiko gaitzespena, desparekotasun-egoerak areagotzea eta gerra-gatazken segida etengabea. Gizarteek, pertsonak, sentitzen dute politikak ez dituela arazoak konpontzen, ez eta erronka globalei aurre egiten ere. EAJ-PNVk eta alderdi guztiek askotariko erronkei egin behar diete aurre, eta erronka horiek bere funtzionamenduan eta izen onean dute eragina. Gaur egun, konpromisoa, parte-hartzea, digitalizazioa, erabakiak hartzeko prozesuak eta informazioa ulertzeko modu berri bat dago; horiek guztiak funtsezkoak dira erakunde politiko batentzat. Horrek aldaketa ekarri du herritarrek komunitatearen barruan, oro har, eta alderdi politikoaren barruan, bereziki, beren parte-hartzea ulertzeko moduan. Gizarte-ohitura berrien ondorioz, militantzia politikoak eta sozialak pertsonen bizitzan gero eta garrantzi handiagoa hartu duten beste faktore batzuekin lehiatu behar du, hala nola kontziliazioarekin eta aisialdiarekin.

Horregatik erabaki da txosten hau planteatzea. **Bere helburu nagusia da EAJ-PNV erakunde demokratiko gisa sendotzea, militantziakoa eta arina.** Alderdikideek eta alderdizaleek entzun egiten zaiela sentitzea nahi dugu, beren irizpideak adieraztera animatu daitezela, eta beste modu batean parte hartzea animatu daitezela, herri proiektu politiko zirrargarri, moderno eta eraginkor baten parte izanik. Alderdiak erakutsi behar du ulertu egiten dituela gizarteak eta bere herritarrek dituzten arazoak, eta benetako konponbideak aurkitzeko bideak ezagutzen dituela. Hori guztia, alderdikideentzat eta alderdikideen eskutik egin behar da.

Gaur egun ez litzateke batere zintzoa izango alderdikideen artean eztabaida ematen ari dela ez onartzea, eztabaida ematen ari baita Alderdiaren funtzionamendua hobetzeko moduaren inguruan eta egun bizi ditugun erronkei eraginkortasunez erantzuteko eguneratu daitezkeen eta eguneratu behar diren aldeei buruz. Barne-eztabaida hori areagotu egin zen pandemiaren eta pandemiak eragin zituen ondorio politiko eta sozialen ondoren. Gure alderdikideek eurek behin baino gehiagotan adierazi dute, eta berrikitan Entzunez Eraiki prozesuan, aldaketak egin behar direla, gurea alderdi biziagoa, erakargarriagoa eta funtzionalagoa izan dadin. Alderdikideek sakoneko eraldaketak eskatzen dituzte Herri honen zentralitatean daukagun lekuari eusteko eta euskal gizartearen gehiengoaren kezka eta beharrekin konektatzeko. Alderdi eta mugimendu askorentzat EAJ-PNV eredu eta erreferentzia izan da beren barne egituraketa egiteko orduan, eta azken urteotan lortutako emaitzek bermatzen dute Alderdiak ondo funtzionatu duela. Baina ezin gara konformatu. Garai berrietara egokitu behar da, eta barne-mailan sortzen diren erronka berriei erantzun behar zaie. Erronka horiek erakundearen berezko dinamiken emaitza dira, eta, kanpo-mailan, Euskadin eta munduan gertatzen diren aldaketen eragina gero eta bizkorragoa da.

EAJ-PNVk jarraitu behar du izaten demokrazia defendatzen duten eta Europan Euskadi aske baten ideala harrotasunez babesten eta zabaltzen duten euskaldunen etxea. Familia bat, azken batean, non elkarri entzuten diogun eta eskuz esku lan egiten den, euskal aberria eta denon etorkizuna eraikitzeko. Duela 130 urte sortu zenetik, EAJ-PNV tresna bat baino gehiago izan da euskaldunentzat. Bide bat izan da demokrazia, Euskadi, komunitatea eta bere interesak defendatzeko. Horregatik bihurtu da bizitza politiko eta soziala ulertzeko eta parte hartzeko modu bat. Proposatzen dugun eraldaketaren helburua da EAJ-PNVren izanak indartsu eta indarrean jarrai dezala hurrengo hamarkadetan.

3.- GORDETZEA PLANTEATZEN DUGUNA

Txosten hau hasi dugu hausnarketa eginez, **gaur egun ditugun balio, antolamendu- eta funtzionamendu-moduei buruzko gogoeta eta arakatze apreziatiboa eginez.** Horiek zaindu behar ditugula uste dugu, gure Alderdiaren garapenaren eta funtzionamenduaren oinarri genetiko funtsezkotzat hartzen ditugulako, gure DNA osatzen dute, gure izana. Euskadiko alderdi gidari izateko aukera eman diguna.

Eta gure txostena hasteko modu hau ez da besterik gabe gertatu, nahita egin dugu apreziatitok abiatuta eboluzionatu behar dela uste dugulako.

Hausnarketa eta arakatze sakon batetik abiatuta, ondorengo eboluzioa oinarrituko da gure bizitzan arrakastatsu gertatu denaren arabera. Anbizioz aurrera eginez, gaur egun eta etorkizun hurbilean, positibotasunetik abiatuta, zuzenketak egiteko eta jaso behar diren elementu berriak jasotzeko, errealitate sozial, politiko, kultural eta teknologiko berrietara eta, batez ere, munduan bizi dugun etengabeko aldaketara egokitzeko.

Euzko Alderdi Jeltzalea **militantziaren eraginez eraiki da, militantzia anitz eta askotarikoa, barne funtzionamenduan berdintasunez parte hartzeko eskubidea aitortzen baitu**. Militantzia **euskalduna eta euskaltzalea**, euskara bere nortasunaren funtsezko elementu gisa bultzatzen duena.

Euzko Alderdi Jeltzalearen militantziak Euskadiko gizartearen espektro zabala ordezkatzeko du, eta horrek honela definitzen du Alderdia: **klasearteko, belaunaldien arteko, askotariko eta berdintasunezko erakunde politikoa**. Militantzia horren mobilizazioa funtsezkoa da, Alderdia bere helburuak lortzera bultzatzen duen motorra baita, aldaketa sozialak sortuz eta herritarren parte hartzetik Euskadiren interesak defendatuz.

Antolamendu-egiturari dagokionez, **hiru eremutan banatzen da: uria, herrialdea eta aberria**. Horietan guztietan, **botereak eta zereginak bereiztearen printzipioak egituratzen du antolaketa**, eta batzarrak dira eremu bakoitzeko organo burujabea, bakoitzari emandako eskumenei dagokienez.

Antolaketa eremu bakoitza osatzen dute dagokion batzarrak, buru batzarrak eta justiziako epaimahaiak. Euzko Alderdi Jeltzalearen zuzendaritza-organoa guztiak, edozein jardura-eremutan, kide anitzeko organoak dira, uri epaileen kasuan izan ezik. Instantzia bakoitzak autonomia du antolatze eta funtzionatzeko, betiere Alderdiaren Aberri Estatutuek jasotzen dutena betez.

Aberri organoek beren eskumenen esparruan eta baliozkotasunez hartutako erabakiak berehala aplikatu behar dira, eta nahitaez bete behar dira, betiere uri- eta herrialde-mailako erakundeei erabakiak hartzeko dagokien eskumen-eremuarekiko errespetua bermatuz.

Uri erakundeak, eta bereziki uri batzarrak, Euzko Alderdi Jeltzalearen muina dira. Burujabetasuna erakundeko alderdikideen eskuetan dago, Uri Batzar horietan duten parte hartzean. Uri batzarrek herrialde- edo aberri-mailan ematen dute ordezkari-tza, nahitaez bete beharreko aginduan oinarrituta. Bestalde, Herrialde Batzarrek ordezkari-tza ematen dute aberri-eremuan, kasu honetan ere nahitaez bete beharreko aginduan oinarrituta ere.

Antolaketaren hiru eremuetan erabakiak **gehiengoaren sistema** baten bidez hartzen dira. Uri batzarretan hartutako erabakiak herrialde batzarretara edo Batzar Nagusira eramaten dira, ordezkari-tza bidez. Herrialde Batzarretan hartzen diren erabakiak Aberri Batzarrerara edo Batzar Nagusira eramaten dira, aberri organo horietan dituzten ordezkarien bidez.

Euzko Alderdi Jeltzaleko karguak hautatzeko sistemak barne demokraziarekiko eta militantziaren parte-hartzearekiko konpromisoa islatzen du. Sistema horri esker, karguak, uri-, herrialde- eta aberri-esparruetan, zuzenean eta gardentasunez aukeratzen dituzte alderdikideek, eta horrek bermatzen du hautatutako pertsonen Alderdiaren eta alderdikideen interesak eta balioak ordezkatzeko dituztela.

Barne karguei zein kargu publikoei dagokienez, azken hamarkadetan Euzko Alderdi Jeltzalea gidatu duten hainbat printzipio daude: **bateraezintasun-erregimen bat eremu guztietan, burubikotasuna, botere-banaketa, kargu-metaketarik eza eta botere-kontzentrazioerik eza bermatzen dituenak.**

Kargu guztiek, barne karguek zein kargu publikoek, ondo zehaztuta izan behar dituzte beren jardun politikoaren helburuak, eta batzarrei dagokie helburu horiek ebaluatzea. Nabarmentzekoa da aldizka kontuak emateko betebeharra, hainbat arlotan, uri, herrialde eta aberri mailan.

Batzokiak funtsezko elementu dira Euzko Alderdi Jeltzalearen funtzionamendurako. Barne-antolamenduko sistemaren funtzionamendurako engranajerik garrantzitsuena dira, eta elkartzeko gune bat sortzen dute alderdikideentzat eta uri erakundeentzat. Erakundearen eta alderdikide ez direnen arteko hurbilketa eta konexiorako espazio bat ere eskaintzen dute.

Alderdikideen, batzokien eta uri batzarretatik datorren antolaketa sistemaren baterakuntzak kapilaritate handia ematen dio Euzko Alderdi Jeltzaleari Euskadiko gizartean, eta gizarte horren aldaketak eta beharrak ezagutzeko aukera ematen dio.

4.- INDARTU, BERRIKUSI, LANDU ETA JASO BEHAR DITUGUNAK

Eta aurreko atalean gorde nahi ditugun Alderdiaren berezko ezaugarriak jasotzen baziren, atal berri honetan jaso nahi ditugu berreskuratu, berraztertu, landu edo jaso nahi ditugunak, pentsatzen, esaten eta egin nahi dugunarekin bateragarriak izan daitezen, bai eta errealitate sozial, kultural eta teknologiko berrieekin ere... eta batez ere munduan bizi dugun testuinguru aldakorrera moldatzen lagun diezaguten.

Alderdikideek eta herritarrek, oro har, Alderdia baloratzen du bere kargu eta ordezkarien jokabidearen arabera. Beraz, egiteko modua aldatzen badugu, Alderdiaz egiten den balorazioa aldatuko da. Alderdiaren nortasun publikoa izango da gure barne karguek eta ordezkariak egingo dutenaren arabera, eta ez gure txostenetan edo estatutuetan jasota dagoenaren arabera. Benetan garrantzitsua dena da egun bakoitzean **EGITEN DUGUNA**, gure jokaera eta jardunbidean garbi jokatzeko.

Garbitasun hori bermatzeko, asmo handiz, idealismo pragmatikotik, egin beharrekoak honela identifikatu eta sailkatu ditugu:

- **Indartu:** Iraganean protagonismo handiagoa izan zutelako baliagarriak izan zirelako eta azken urteotan bertan behera utzi ditugulako.

- **Berrikusi:** Bizi garen munduaren inguruabar aldakorren eraginez eta gizartearen exigentzia berriengatik egokitu egin behar diren gaiak.
- **Landu:** Bere sasoian identifikatu ziren arren, behar beste landu ez ziren eta garatu beharko liratekeen alderdiak.
- **Jaso:** Praktika berriak, orain arte beharrezkotzat jo ez ditugunak, eta hala eta guztiz ere gaur egun ezinbesteko bihurtu direnak.

<p style="text-align: center;"><u>INDARTU</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ● Alderdikideen parte hartzea. ● Entzutea. ● Tokiko lidergoak. 	<p style="text-align: center;"><u>BERRIKUSI</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ● Desburokratizatzeko. ● Kargu eta ordezkarien jarduna ebaluatzeko sistema. ● Ospakizun nagusiak. ● Bateriaezintasun-sistema. ● Karguan jarraitzeko denbora. ● Komunikazio-kanalak indartzea.
<p style="text-align: center;"><u>LANDU</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ● Kudeaketarako sistematika. ● Etika eta compliance sistema. ● Giza-baliabideen politika barne karguentzat eta kargu publikoentzat. 	<p style="text-align: center;"><u>JASO</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ● Kanal presentzial eta digitalaren bidez arreta eta harremana bermatzea. ● Pertsonak kudeatzeko politika integrala ● Erakundea alderdizaleei irekitzeko estrategia bat. ● Gaikako lantaldeen bidez prestakuntza eta topaketak sustatzea. ● Elkarlanerako guneak sustatzea. ● Antolaketa Txostenari jarraipena egiteko batzorde bat eratzea.

Indartu behar duguna

Alderdikideen parte hartzea

Batzar eta bileretako gai-zerrendak birdefinitu. Erakunde modernoagoa, dinamikoagoa eta irekiagoa sustatzea. Horrek esan nahi du berriz definitu behar dela landu beharreko gaien agenda, metodologia berriak ezarri behar direla, eta bilerak eta batzarrak egituratu behar direla, barne-kargudunen eta hainbat eremutako ordezkarien esku-hartzearekin. Gainera, funtsezkoa da harreman hurbil eta egonkorak sustatzea alderdikideen eta haien ordezkarien artean.

Hiru hilean behingo batzarren urteko egutegia eginez (erakundeko maila bakoitzean).

Antolamendu-maila bakoitzean belaunaldien arteko (politikoa, kulturala, soziala) **jardueren urteko egutegia diseinatuz.**

Alderdikideen Datu Basea (ALERNA) etengabe eguneratuz, alderdikide bakoitzaren CVrekin eta harremanetarako datuekin, kontaktu- eta ezagutza-sare eguneratu bat izateko.

Entzutea

Entzuteko prozesuak bizi dugun errealitate aldakorrera egokitzea. Barne-karguetarako eta ordezkaritza-karguetarako sistematika bat diseinatu behar dugu, entzutearen bidez egunerokotasuna jasotzea bermatuko duena, barne-eskaerei eta eskaera sozialei erantzun ahal izateko (hitzorduak alderdikide/herritarrekin, stakeholderrak...).

Entzutea gure oinarri genetikoaren parte da eta izan behar du. Barne-karguren bat edo ordezkaritza-karguren bat betetzeari lotuta egon behar du. Eta, hori bermatzeko, ezagutza, gaitasun eta trebetasun egokiak eskuratzen lagundu beharko zaie, bai eta entzuteko bideak etengabe berrikusten eta eguneratzen ere.

Kontua ez da entzumen-prozesuak erraztea, baizik eta entzumenetik abiatuta lan egitea.

Entzuteko mekanismoak birpentsatu eta birdefinitu behar dira, euskal herritarren eta eragile sozial, kultural eta ekonomiko nagusien eskaerak hobeto identifikatzeko, eta, horrela, joera sozialak eta sakoneko mugimenduak aurreikusi ahal izateko. Barne-entzute horren kudeaketa sistematizatzea, eta politika berriak gauzatzeko azterlan, dokumentazio eta gogoeta-material bihurtzea.

Tokiko lidergoak

Iraganean, ez hain aspaldi, gure ezaugarri izan ziren lidergoak. Lidergoak behar ditugu aberri esparrutik haratago. Tokiko lidergoen ugaritzea sustatu behar dugu, egunero-egunero, barne-esparru edo esparru publiko bakoitzean, egunerokoan, kezkak atzemateko eta aditzeko eta horiei erantzuna emateko gai direnak, bai barne-mailan, bai erakunde-mailan, gizartearen eskaerei eta beharrei erantzutea lortuz, horrela gure Alderdi-nortasuna berreraikiko dugu herriaren zerbitzura dagoen erakunde gisa.

Konfiantza sortzeko elementurik garrantzitsuena da tokiko lidergo bakoitzak bere ingurunearekin duen eguneroko harremana.

Bailarako arduraduna edo hamarrekoa -herrialde buru batzarreko burukidea- funtsezko pertsona da, eta bermatu behar du erakundeak eskualde bakoitzarekiko eta uri erakunde bakoitzarekiko hurbiltasuna eta konexioa dituela, herri bakoitzean dauden arazoak ezagutzen dituela eta horiek konpontzeko inplikatzeko dela.

Berrikusi behar duguna

Desburokratizatze

Informazio, koordinazio, erabaki eta hautaketako prozesuak eta prozedurak berrikustea, horiek sinplifikatzeko, Alderdiaren printzipioei eta indarrean dauden estatutuei jarraiki. Proposatzen da:

- Alderdian ohiko diren izapideak sinplifikatzeko plana, txantiloak eta kudeaketa-metodo arinagoak eta/edo digitalagoak diseinatuta.
- Herrialde buru batzarren aldetik beren lurraldeko uri buru batzarrei kudeaketa administratiborako eta ekonomiko-finantzariorako laguntza eta erraztasuna ematea.
- Barne -kudeaketaz arduratzen diren kargudunentzako prestakuntza eta tutoretza.

Kargu eta ordezkarien jarduna ebaluatze

Beharrezkoa da etengabeko ebaluazio bat sistematizatzea, urteko ohiko batzarretan aurkeztu ohi diren zuri-bideetatik harago. Batzarretako kontu-emate eta ebaluazioetarantz jo behar dugu, hiru hilean behin gehienez ere, eta horiek oinarritzako izango dira alderdikideen parte-hartzea berreskuratzeko.

Bai barne karguek bai erakundeetako ordezkariak, zuzentasunez eta eredugarritasunez jokatu behar dute, baina baita ikuspegi zabalarekin ere, eta inola ere ez lirateke erori behar "iritzi publiko" izen okerra ematen zaionarekin atsegina izateko tentaldian. Gure Alderdiak, ordezkarien bitartez, askotariko proiektutan erakutsi du gogoeta lasaiak, beharren diagnostikoak eta etorkizuneko ikuspegia abiapuntu hartuta, nahiz eta itxuraz arbuatuta egon, proiektu horiek gure lurraldearen eta gizartearen benetako motor eta estimulu bihurtu direla.

Gure karguek eta ordezkariak etengabe sentitu behar dute Alderdiaren eta haren misioaren zerbitzura daudela, eta beren jardunaren arabera erabakiko dela haiek beren tokian jarraitzea ala ez.

Ospakizun nagusiak

Ausardiaz berrikusi ondorengo ospakizunen formatua, kokapena eta eguna: Aberri Eguna, uztailearen 31, Alderdiaren sorrera-eguna, Alderdi Eguna eta Sabino Aranaren heriotzaren urteurrena.

Bateraezintasun-sistema

Berrikusi egin behar dugu, bateraezintasun-sistema eguneratzeko eta karguak ez metatzeko. Berrikuspen hori barne-karguaren eta ordezkari publikoaren arteko bateraezintasun-printzipioaren unibertsaltasuna oinarritzat hartuta egin beharko litzateke, baina, uri- edo herrialde-erakunde jakin

batzuen izaera berezia kontuan hartuta, ondo neurtuta egin beharko litzateke.

Karguan jarraitzeko denbora

Karguetan egoteko denbora mugatzearen ingurukoa da barne eztabaida guztietan behin eta berriz errepikatzen den gaia. Hala ere, gure ordezkaritza-eremu bakoitzeko hauteskunde-erregimenak inolako murrizketarik gabe jarraitzen badu, eta hala jarraitzen badu alderdi politikoen ordezkartzaren gehiengoak ez mugatzea erabaki duelako da, zuhurtziagabekeria litzateke geure burua mugatzea. Hala ere, zentzuzkoa da ondoz ondoko bi agintaldi baino gehiagotan parte hartu ahal izateko, dagokion eremuan boto kualifikatuen gehiengoa behar izatea.

Komunikazio-kanalak indartzea

Alderdikideek egin ohi duten eskaera nagusienetakoa da Alderdiak hainbat gairen inguruan duen jarrerari buruzko egiazko informazioa jasotzea, iritzi bat izateko. Horretarako proposatzen da:

- Alderdikideek jasotzen eta eskatzen duten informazio kopurua eta horren kalitatea berrikustea eta hobetzea.
- Alderdikideek informatzeko erabiltzen duten Alderdiaren iturriak eta kanalak aztertzea.
- Erakunde demokratikoa, militantziazkoa eta arina finkatzea, Euskadiren erronka politiko eta sozialei erantzuteko.

Landu behar duguna

Kudeaketarako sistematika

Plangintzan oinarritutako kudeaketa-sistematika berriz diseinatzea eta unibertsalizatzea, bai Alderdi osorako, bai erakunde guztietarako. Uri eta herrialde erakunde bakoitzak urteko kudeaketa-plan batean jaso beharko luke zein helburu eta ekintza landu nahi dituen, hurrengo urtean lortzeko; plan hori dagokion batzarrak aztertu beharko luke, eta, onartu ondoren, ohiko batzar bakoitzean haren garapenaren berri eman beharko luke, batzarrak ebaluatu beharko baitu.

Kudeaketa-plan horietan, jakina, goiko eremuetan onartutako helburuak eta ekintzen garapena bistaratu beharko dira.

Edozein erakunderentzat, lokarririk onena dira elkarren artean partekatzen diren helburuak eta ekintzak.

Etika eta compliance sistema

Sistemaren asmo handiko lanketa, Alderdiaren izen ona indartzeko, ondorengoaz finkatuz:

- Alderdiaren konpromiso etikoa erakunde gisa, ordezkartzako barne karguena eta alderdikide guztiena.
- Legezketasuna betetzea.
- Finantza-gardentasuna.
- Jardunbide okerren prebentzioa.

- Barne karguen eta kargu publikoen arteko interes-gatazka kudeatzea.
- Salaketak barne-kanal baten bidez jasotzea eta aztertzea.

Jaso behar ditugunak

Arreta eta harremana bermatzea kanal presentzialaren eta digitalaren bidez

Asmo handiko digitalizazio-plana ezartzea Alderdiaren ekintza politikoko arlo guztietarako. Plan hori sinkronizatuta eta egungo dinamikarekin eta barne-prozesuekin koordinatuta garatuko da, Alderdia modernizatzeko helburuarekin, inolako pertsona edo barne-erakunderik desabantaila-egoeran utzi gabe. Proposatzen da:

- Intranet bat abian jartzea alderdikideentzat eta uri, herrialde eta aberri erakundeetarako, erantzukizunen araberako aukerekin.
- APP, sare sozial eta mezularitza-aplikazioen erabilera eta inpaktua Alderdiaren kudeaketan eta barne bizitzan optimizatzeko eta hobetzeko azterlana egitea.
- Marketin digitaleko estrategiak eta tresnak aplikatzea, ikus-entzuleengana modu eraginkorragoan iristeko eta haien interakzioa eta parte-hartzea bultzatzeko, bai kanpainaldietan, bai hauteskunderik gabeko aldietan.

Pertsonak kudeatzeko politika integrala

Barne-karguentzat zein ordezkari-tza-karguentzat:

- Barne-karguetan edo ordezkari-tza-karguetan hasten diren pertsonentzako **harrera-plana**. (Misioa, ikuspegia, balioak, helburuak eta ekintzak, eta erakundearen egoerari buruzko informazioa).
- Elkarrizketako eta harremanetako ezagutzetan, gaitasunetan eta trebetasunetan eta promesen kudeaketan jarduteko **gaituntza- eta laguntza-plana**. Gure ordezkarien jarduera ahalik eta gehien zaindu behar dugu, haien gaitasunak indartuz, hori guztia apaltasunik gorenetik abiatuta.
- **Etikan eta legezketasunean gaitzea.**
- **Buru batzarretan hainbat profil sartzea berrikusi eta aztertzea.**
- **Entzuteko prestakuntza.**
- **Barneko eta kanpoko talentua erakartzeko eta kudeatzeko plan bat egitea.**
- **Barne-karguetako eta ordezkari-tza-karguetako ordezkariak kudeatzeko plana.**
- Historian zehar barne-karguak edo ordezkari-tza-karguak bete dituzten pertsonak aintzatesteko eta aintzat hartzeko politika.
- **Alderdikide berriei harrera egiteko plan bat lantzea.**

Erakundea alderdizaleei irekitzeko estrategia, ondorengoak barnean hartuta:

- Figura hori Alderdiaren estatutuetan egokitzea.
- Komunikazio-kanpainak diseinatzea, interesa sortzeko eta erakundean parte hartzera animatzeko.
- «EAJ-PNVren lagun» horientzat berariazko komunikazio-bideak sendotzea (Alderdigunea

eta Zukesan).

- Lan-dinamika irekiak sortzea gai interesgarriari buruz, hala nola hezkuntzari, osasunari, etxebizitzari edo ekintzailetzari buruz, batzuk aipatzearen.

Gaikako lantaldeen bidez prestakuntza eta topaketak sustatzea. Horretarako, hainbat jarduera espezifiko egingo dira egoitzetan.

- Prestakuntza-ekitaldiak, hala nola work kafeak, hitzaldiak, hub digitalak...
- Gure karguentzako eta erakundeetako ordezkarietako ikastaroak eta prestakuntza-moduluak sortzea (online edo aurrez aurreko formatuan).
- Formatu ireki eta berritzaileko lan-bilerak, barne-kargudunak, erakundeetako arduradunak, alderdikideak eta alderdizaleak elkartzea ahalbidetuko dutenak.

Elkarlanerako guneak sustatzea

- Aliantzak eta erakundeekin zein elkarteekin elkarlanean aritzeko ahalegina, gizartearen arazoei eta eskaera berriei aurre egiteko.
- Lantalde bat ezartzea etorkizuneko joera sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta politikoak
- aztertze, eta joera horiek Euskadin eta Alderdian izango duten eragina aztertze.
- Tresna berriak abian jartzea, batzokiek, herrialde edo aberri erakundeek antolatutako ekitaldi eta jardueren agenda ezagutzeko, eta alderdikideek ere parte har dezaten irekitzea, edozein uri erakundeetako direla ere.

Antolaketa Txostenak Aberri Estatutuekin eta Jarraipen Lantaldearekin izango duen lotura

Antolaketa Txostenaren zirriborroak jasotzen dituen jarduera-ildoak eta proposamenak, onartuz gero, Alderdiaren barne-arauetan garatu beharko dira, gure Aberri Estatutuetan ere. Ezinezkoa da Antolaketa Txosten berri bat lantzen den bitartean Aberri Estatutuak erreformatzeko atazari heltzea. Ematen du zentzuzkoena dela lehenik eta behin antolaketa-eredua onartzea eta, ondoren, Aberri Estatutuak errealitate berri horretara egokitzea.

Bizkor aritzeko eta bi tresna horiek Alderdiaren barne-funtzionamenduan alaitzen jarraitzeko, EAJ-PNVren IX. Batzar Nagusiaren baitan hirugarren bilkura bat egitea proposatzen da, martxoaren 29ko eta 30eko bilkuretan Antolaketa Ponentzia onartu ondoren, betiere Batzar horren araudian eta Alderdiaren gainerako arauetan aurreikusitako epeak eta formalitateak betez.

Hirugarren bilkura hori Batzar Nagusiaren behin betiko gai-zerrendan jasoko da, zeina Batzarra ireki baino hamabost egun lehenago bidaliko baita. EBBren aurreikuspenen arabera, bilkura hori 2025eko urria baino lehen egingo da, eta egun hori ahalik eta lasterren emango da ezagutzera, Batzar Nagusiko ordezkariak berme guztiekin parte hartu ahal izan dezaten.

Beraz, kontua litzateke martxoaren 29ko eta 30eko bilkuretan Antolaketa Txostena onartzea, eta geroratuak hirugarren saio horretan Aberri Estatutuak onartzea, Txosten berriaren ondoriozko aldaketak sartuta.

Prozesu horri arintasuna emateko eta Antolaketa Txostenean jasotakoak betetzen direla bermatzeko, Jarraipen Lantalde bat sortuko da, eta hiru hilean behin txosten bat igorriko dio Aberri Batzarrari, onartutako edukien garapenari eta ezarpen-erritmoari buruz.

ZIRRI BORROA

5.- ONDORIOAK

Testuinguru horretan, eboluzionatzeko erronka planteatzen zaio EAJ-PNVri, Euskadin indar liderra izaten jarrai dezan. Euskal herritarrek erakunde sendoak behar dituzte, ziurgabetasun garaian aingura gisa balioko dutenak, gure herria gidatu duten balioak eta xedeak aintzat izanik.

Hala ere, erronka horri heltzeko beharko dugu alderdikide bakoitzaren inplikazioa. Alderdia erreformatzeko identifikatu ditugun lau gaiak alderdikide guztien ahalegin bateratua eskatzen dute. Alderdikideek proposamen horiei buruz hausnartu behar dute eta beren gain hartu beharko dute eman beharreko aldaketa eragiteko erantzukizuna, berreskuratzeko, berrikusteko, lantzeko eta jasotzeko lanei ekin diezaiegun.

EAJ-PNVk erakutsi du Euskadiren aurrerabiderako eta bere herritarren ametsak gauzatzeko tresna dela. Hemendik aurrera, erronka izango da ondare horrek datozen urteetan iraungo duela eta eboluzionatuko duela bermatzea.

Alderdiaren benetako indarra ez datza idazten edo esaten dituenetan, egiten dituenetan baizik. EAJ-PNVren nortasun publikoa bere alderdikideen eta erakundeetako ordezkarien eguneroko ekintzen araberakoa da. Horregatik, funtsezkoa da proposamenak ekintza zehatz eta ukigarri bihurtzea.

Eta zuk zer egingo duzu?